

## ***Gizarte-laguntzak***

### **Nork jaso ditzake?**

Mutualiak babestutako langileek, autonomoek eta pentsiodunek, laneko istripuren bat izan badute edo laneko gaixotasun baten ondorioz. Baita haien zuzeneko senideek ere.

### **Nola finantzatzen dira?**

Gizarte-laguntzako erreserbaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioak onartutako urteko aurrekontuaren kontura, urteko soberakinaren % 10ez zuzkituta dagoena.

### **Nork aitortzen ditu prestazio horiek?**

Prestazio Berezien Batzordeak. Hori Mutualiaren enpresa elkartuek eta hark babestutako langileek osatutako organo paritario parte-hartzailea da. 10 pertsonak osatzen dute: horietako 5 Zuzendaritza Batzordeak izendatutakoak dira, eta enpresak ordezkatzeko dituzte, eta gainerako 5ak sindikatuek izendatutakoak dira, eta langileak ordezkatzeko dituzte.

### **Laguntzen zenbatekoa**

Laguntzen zenbatekoa langilearen behar-egoeraren arabera eta urte horretarako onartutako aurrekontuko partidaren arabera aldatzen da. Kasuak banan-banan ebazten dira. Laneko istripuak edo gaixotasunak eragindako baldintzak aztertzen dira, baita laguntzaren xede diren gastuak ordaintzea

eragozten duen familia-unitatearen egoera ere. Batzordeak zein laguntza emango duen erabakitzen du egintza horien arabera.

### **Zer laguntza-mota eska daitezke?**

- Heriotzagaratiko laguntzak
- Ibilgailu eta altzari berezietarako laguntzak
- Arkitektura-oztopoak kentzeko laguntzak
- Protesi berezietarako laguntzak
- Laguntzaile-gastuetarako laguntzak, osasun-laguntzaren edo ospitaleratzearen ondorioz
- Ikasketetarako eta prestakuntzarako laguntzak
- Etxeko laguntza
- Beste laguntza batzuk

#### Heriotzagaratiko laguntzak

- Heriotzagaratiko laguntza: 3.000 € 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako heriotzengatik (lehen 2.500 €).
- Aurreko ahaideentzako prestazioak: 1.500 € aurreko ahaide bakoitzeko 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako heriotzengatik (lehen 1.250 €).
- Aurreko / alboko ahaideentzako prestazioak: 3 aldiz indarreko LGSa (haren familia-unitateko kideak, ekonomikoki hildakoaren mende daudenak, guztira familia-unitateko kide bakoitzeko LGSa gainditzen duten pentsiorik edo diru-sarrerarik jasotzeko eskubiderik gabekoak).
- Ezohiko zurztasun-prestazioa: 5.000 € umezurtz bakoitzarentzat, bizirik dagoen aitak edo amak alarguntasun-pentsiorik jasotzeko eskubiderik ez badu.

### **Nola eska ditzaket laguntza horiek?**

Gizarte-laguntzarako eskaera aurkeztuta Mutualiaren edozein zentrotan, Prestazio Ekonomikoen Sailari zuzendutakoa.

Posta elektronikoz: [accidentes@mutualia.es](mailto:accidentes@mutualia.es)

Faxez: 944.042.103 / 945.009.091

- Edozein kontsultatarako, deitu telefono hauetara: 944.042.102/ 945.009.070
- Laneko istripu edo gaixotasun baten ondorioz desgaitasuna duten pertsonentzako protesi edo ibilgailu bereziak eskatzeko, kudeaketa Mutualiaren Osasun Zerbitzuen bidez egin behar da.